

1461. ZENBAKIDUN ALKATETZAREN DEKRETUA

Xedea

2018. urterako iragarkiak egunkarietan argitaratzeko zerbitzua kontratatzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2018. urtean Bermeoko Udalak iragarkiak aldizkarietan argitaratzeko zerbitzu kontratua esleitzeko proposamenak eskatu ziran lau enpresari: Zosmamedia, Taller2A, Onmotiva eta Mediasal.

Bigarrena: 2018ko abenduaren 28an, Idazkaritza saileko AOTk erabagi proposamena igorri dau.

Argudioak

Lehenengoa: Gonbidatutako enpresetatik bik aurkeztu dabez euren proposamenak: Mediasal eta Taller2A.

Taller2A enpresek %10eko deskontua eta hobakuntza zehatz honeek eskaini dauz:

- Harremana beti euskeraz izango da.
- Medio guztietan tipografia eta modelo berdineko iragarki korporatiboak publikatea.
- 24 orduko tramitazioa egitea medio guztietan urgentzia bat egonez iragarkiak publikateko.
- kokapen optimoa medioetan.
- faktura sinplifikatua.
- faktura elektronikoa erabiltzeko aukera.
- Eusko Jaularitzak erabilitako e-faktur, fakturazio modeloa erabili dezakegu
- hileroko iragarkien errekopilazioa eta bidalketa.
- telefono bakarra eta posta elektronikoa bakarra zeuen erosotasunerako.
- finantziazioa

Mediasal enpresek %9ko deskontua eskaini dau eta, hobakuntza moduan, enpresearen eta bere funtzionamenduaren dosierra aurkeztu dau.

Beraz, eskaintzarik hoberena Taller2A enpresearena izan da.

Ganera, 2018. urterako aurreikusten dan kopurua ez danez 18.000 eurora heltzen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen dauan 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 138.3 artikulua araberan, bidezkoa da zuzeneko esleipena.

Bigarrena: Kontratu honen esleipena, indarrean dagoan epean eragiten dauzan obligazio guztiei aurre egiteko kreditu egoki eta nahikoa izatearen baldintzapean



geratzen da, horrela izan ezean kontratua etenda gelditu daitekeelarik, kontratua indarrean sartu baino ekitaldi bat arinago hartzen daualako indar juridikoa.

Erabagia

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, honako hau erabagi dot:

LEHENENGOA: 2018. urterako iragarkiak egunkarietan argitaratzeko zerbitzua TALLER2A enpresari esleitzea, ezaugarri honeekaz:

- ✓ Iragarkiak, Publizitate enpresara bidaltzen diran egunetik hasita, denbora laburrean argitaratutakoak izan beharko dira, gehienez hiru (3) eguneko epean, ez bada, premiatasunagaitik, epe laburragoan argitaratzeko eskatzen dala (beti be gitxienez 24 ordu lehenago).
- ✓ Udalak bideratutako eskari guztietan udal sailaren aipamena agertuko da, jagokon egiaztapena burutu ahal izateko fakturazinoan (albaranetan sail bidaltzailea agertu beharko da).
- ✓ 2018. urterako zerbitzuaren deskontua eta hobakuntzak esleipendunak egindako proposamenaren arabera izango dira.
- ✓ Kontratuaren iraupena, 2018ko urtarrilaren 1etik 2018ko abenduaren 31ra artekoa izango da.

BIGARRENA: Esleipendunari jakinarazotea udalagaz izango dauzan ahozko eta idatzizko hartu-emonak euskeraz izango dirala eta fakturarik edo bestelako idazkirik aurkeztu behar dauenean euskeraz aurkeztu beharko dauzala.

HIRUGARRENA: Interesdunei eta kontu hartzailetzari Dekretu honen berri ematea.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran Dekretu honen berri ematea.

Bermeon, 2017ko abenduaren 28an
ALKATEA

NIRE AURREAN
IDAZKARI
AKZIDENTALA

Idurre Bideguren Gabantxo

Karmele Muñoa Arrigain

